



Ogasun, Finantza
eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda,
Finanzas y Presupuestos

IDENTIFIKAZIOA	IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO LEKUA		SORTZAPENA	EKITALDIA		
				EPEALDIA		
			Jarduerarik gabe	90	Ordezkoa	91
			Epez kanpo eta errekerimendu bidez aurkeztua			930

Likidazioaldi honetan sartu zara hartzekodunen konkurtsoan?	907	BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input type="checkbox"/>	- Konkurtsoa deklaratzeko duen autoaren data	908	Eguna	Hila	Urtea
Hileroko itzulketetarako erregistroan erroldatuta dago?	92	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	- Konkurtsoan sartzeko autoa aldi honetan eman bada, autolikidazio tipoa adierazi	909	Konkurtso aurrekoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu duzu?	910	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Konkurtso ondokoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaizkien eragiketen hartzaile al zara?	911	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					

BEZ ESKURATUA	OINARRIZKO ZERGAGAIA		TASA		KUOTA		GUZTIRA	
	01		02		03			
Errg. Orokor.	204		205	4%	206			
	207		208	10%	209			
	207		208	21%	209			
Errg. Orokorreko oinarri eta kuotena aldatuta	370				371			
Subjektu pasiboaren inbertsioa	372				373			
G. Baliokide	10		11	0,5%	12			
	213		214	1,4%	215			
	216		217	5,2%	218			
G. Baliokid. oinarri eta kuotena aldatuta	374				375			
Bat. barruko ondasun eta zerbitz. Esk.	19		20	4%	21			
	222		223	10%	224			
	225		226	21%	227			
Bat. barruko ondasun eta zerb. esk. oinarri eta kuotena aldat.	376				377			
ESKURATUTAKO KUOTA GUZTIRA (03) + (206) + (209) + (371) + (373) + (12) + (215) + (218) + (375) + (21) + (224) + (227) + (377)							28	

KENKARIAK	KENTZEKOAK		GUZTIRA	
	Ondasun eta zerbitzu arrunten barneko eskuraketen BEZ kengarria	30		
	Barneko inbertsio ondasunen eragiketen BEZ kengarria	31		
	Ondasun arrunten inportazioen BEZ kengarria	32		
	Inbertsio ondasunen inportazioen BEZ kengarria	33		
	Ondasun eta zerbitzu arrunten Batasunaren barruko eskuraketen BEZ kengarria	34		
	Inbertsio ondasunen Batasunaren barruko eskuraketen BEZ kengarria	35		
	N. Ab. eta Arr. Erregimen Bereziko Konpentsazioak	36		
	Inbertsioen erregularizazioa	37		
	Kenkarien zuzenketa	46		
KENTZEKOAK GUZTIRA (30) + (31) + (32) + (33) + (34) + (35) + (36) + (37) + (46)		38		

ALDEA (28) - (38) = 39

Eragik. Zenbatak	ARABA %	GIPUZKOA %	BIZKAIA %	GAINERAKOA %
40		41	42	43
Arabako Herrialde Historikoari dagokion kuota (39) x (40) = 44				
Arabako Herrialde Historiko honetan aurreko epealdietatik konpentsatzeko kuota = 45				
AUTOLIKIDAZIOAREN EMAITZA (44) - (45) = 60				

INFORMAZIO GEHIGARRIA	Batasunaren barruko ondasunen eta zerbitzuen emateak, guztira		50		Errekargua, epez kanpo aurkeztu izanagatik	61
	Esportazio balioa guztira		51			62
	Kargarik gabeko eragiketak, kokapen arau jarraiki (salbuespena 56 laukian sartutakoak)		54			63
	Zergari lotutako eragiketak, subjektu pasiboaren inbertsioarekin		55			
	OSSari atxikitako lokalizazio arauen mende ez dauden eragiketak		56			
	Zergapetu eta OSSari lotutako eragiketak		58			

ZERGA ZORRA GUZTIRA
80

KUTXA-IRIZPIDEAREN ARAU BEREZIA AUKERATU DUTEN SUBJEKTU PASIBOENTZAT ETA HAREN ERAGINPEKO ERAGIKETEN HARTZAILE DIRENTZAKO BAINO EZ:
- Ondasun eta zerbitzu emateen zenbatekoak, kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatuarren sortzapenaren arau orokorarekin bat sortu direnak

Zerga oinarria Kuota

- Ondasun eta zerbitzuen erosketen dagozkien zenbatekoak, kutxa irizpidearen araubide bereziak eragin dituenak edo bera aplikatzea eskatzen dutenak

Zerga oinarria Kuota

Data eta izenpea

ITZULTZEA

Bezeroaren kontu kodea (BKK)

303 eredia

Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Autolikidazioa

JARRAIBIDEAK

Autolikidazio eredu hau ondoko araubidea aplikatzen zaien jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek erabili behar dute: zergaren araubide orokorra edo haren araubideetako beste edozein, hauek izan ezik: erakunde taldearen araubide berezia, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia, baliokidetzaren errekarguaren araubidea eta araubide erraztua.

- 1. EKITALDIA:** Autolikidazioari dagokiona adierazi behar da.
- 2. EPEALDIA:** Autolikidazioari dagokiona adierazi behar da, hura hilekoa nahiz hiruhilekoa izan.
- 3. IDENTIFIKAZIOA:** Identifikazio etiketa itsatsi horretarako dagoen gunean.
- 4. JARDUERARIK GABE:** Epealdian jarduerarik egin ez baldin bada, gurutze batekin markatu beharko da horretarako prestatuta dagoen laukia (90).
- 5. ORDEZKO AUTOLIKIDAZIOA:** Autolikidazioa lehenago aurkeztutako beste baten "ordezkoa" izatekotan, egoera hori adieraziko da (91) laukian.
- 6. Markatu (92) laukia, Hileko Itzulketako Erregistroan inskribatuta zauden ala ez adierazteko.**
- 7. Markatu (910) laukia, kutxa irizpidearen araubide berezia aukeratu duzun ala ez adierazteko.**
- 8. Markatu (911) laukia, likidazio aldiaren kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaizkien eragiketen hartzaile izan zaren ala ez adierazteko.**

AUTOLIKIDAZIOA:

BEZ ESKURATUA:

- Araubide orokorrerako erreserbatutako laukietan (01etik 209ra), baliokidetasun errekargurako erreserbatuetan (10etik 218ra) eta EBren barruko ondasun eta zerbitzu eskuratzekoetan (19tik 227ra), likidazio epealdian sortutako oinarriak eta kuota adierazi behar dira, batzuk eta besteak aplikagarria den zerga tasaren arabera berezita.
- Oinarrien eta kuoten aldaketa: Araubide orokorreko laukietan (370 eta 371), baliokidetasun errekargukoetan (374 eta 375) eta EBren barruko ondasun eta zerbitzu eskuratzekoetako laukietan (376 eta 377), osorik edo zati batean balio gabe geratu diren edo burutu eta gero beren prezioa aldatu den eragiketen zerga oinarriak eta kuota edo baliokidetasun errekarguak adierazi behar dira.
- Halaber, araubide orokorreko laukietan (370 eta 371) eta baliokidetasun errekargukoetan (374 eta 375), adierazi beharko dira oinarriaren eta kuotaren edo baliokidetasun errekarguaren aldaketak, arrazoi hauengatik sortuak: urtarriaren 19ko 12/1993 Arauzintzako Foru Dekretuaren (hemendik aurrera, BEZaren Araua) 80.Hiru artikuluan jasotzen diren konkurtso deklarazioko autoarengatik edo dekretu beraren 80.Lau artikuluan jasotzen diren kreditu osotoro nahiz partez kobraezinengatik.
- Subjektu pasiboaren inbertsioagatik sortutako BEZa: (372) eta (373) laukietan, subjektu pasiboaren inbertsioagatik epealdian sortutako zerga oinarrien eta kuoten guztirako batura adierazi behar da (BEZaren Arauaren 84.Bat 2. eta 4. atalak eta 140.quinque artikulua).
- Bidaariaren araubidean salmentarik egitekotan, epealdian araubide honengatik egindako itzulketei dagozkien zerga oinarriak eta kuota kenduko dira autolikidazioan.

BEZ KENGARRIA:

- (30) - (35) laukietan, jasandako BEZaren kuota kengarrien zenbatekoa adierazi behar da, barne eragiketarako inportazioak eta/edo ondasun eta zerbitzu arrunten eta inbertsio ondasunen EBren barruko eskuratzekoak behar bezala bereiziz, hainbanaketa erregela aplikatu eta gero, hala badagokio.
- (36) laukian, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren pean dauden subjektu pasiboek ordaindutako konpentsazioen zenbatekoa adierazi behar da.
- (37) laukian, inbertsio ondasunengatik aurreko epealdietan egindako kenkariaren erregularizazioaren emaitza adierazi behar da, jardueraren hasiera baino lehenagoko kenkariaren erregularizazioa barne hartuta, hala dagokionean. Erregularizazioaren emaitza kenkariaren murrizketa baldin bada, zeinu negatiboa izan behar da.
- Kenkariaren zuzenketa: (46) laukian eragiketen kendutako kuotetan osorik edo zati batean balio gabe geratu direlako edo egin ondoren prezioa aldatu delako gertatu diren aldaketak zehaztu behar dira, behar den zeinua jarrita, bai eta konkurtsoa eta kredituak direla-eta osorik edo zati batean kobraezin diren ere, Arauaren 80. artikuluko Hiru eta Lau idatz zatietan xedatutakoarekin bat etorri.
- LURRALDE BAKOITZARI APLIKAGARRIA ZAION ERAGIKETEN ZENBATEKOAREN BANAKETA PROPORZIONALA:
Subjektu pasiboak lurralde batean baino gehiagotan jarduten badu eta bere eragiketen zenbatekoarengatik administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar

badio zerga, urte bakoitzean zehar eta lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera zehaztutako ehunekoak adierazi behar dira (40), (41), (42) eta (43) laukietan. Bestela idatzi "100" (40) laukian.

- ARABAKO LURRALDE HISTORIKOARI EGOTZ DAKIOKEEN KUOTA (44): bat etorriko dira lauki honetako zenbatekoa eta (39) laukioa. Hala ere, subjektu pasiboak Arabako Foru Aldundiari eta beste lurralde batzuei ordaindu behar badie zerga, agertu behar den zenbatekoa hau da: (44) = (39) bider (40).
- AURREKO EPEALDIETAKO KONPENTSATZEKO KUOTAK, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAK. (45) laukian, aurreko epealdietatik datozen konpentsatzeko kuoten zenbatekoa adierazi behar da. Subjektu pasiboak administrazio bati baino gehiagori ordaintzen badie zerga, Arabako Lurralde Historikoan konpentsatzeko saldoa baino ez da jarri behar da lauki honetan.

EMAITZA:

- ZERGA ZORRA, GUZTIRA (80): (60) laukio emaitza positiboa gehi epeaz kanpo aurkezteagatik ordaindu beharreko errekargua eta berandutze interesak hala badagokio, ken oraingoaren epealdi eta ekitaldi berari dagokion autolikidazio baten bidez lehenago sartutako kuota (behin-behineko kuota), ordezeko autolikidazioak direnean.
- KONPENTSATU BEHARREKOA, GUZTIRA (82): (60) laukio emaitza, edo (60) laukio zenbatekoaren eta (63) laukioaren (behin-behineko kuota) arteko diferentzia, baldin eta kasu batean nahiz bestean emaitza negatiboa bada eta zergaduna ez badago inskribatuta Hileko Itzulketako Erregistroan.
- ITZULI BEHARREKOA, GUZTIRA (81): (60) laukio zenbatekoaren eta (63) laukioaren (behin-behineko kuotaren) arteko aldea, baldin eta itzulketak eskatzeko eskubidea badauka.

INFORMAZIO GEHIGARRIA:

- EB-REN BARRUKO ONDASUN ETA ZERBITZU EMATEAK, GUZTIRA: (50) laukian, autolikidazioaren epealdian EBko kide diren beste estatu batzuetara egindako ondasun eta zerbitzu emate salbuespen zenbatekoa adierazi behar da.
- ESPORTAZIOAK ETA HAIEN PAREKO ERAGIKETAK, GUZTIRA: (51) laukian, autolikidazioaren gaia den epealdian Kanariar uharteetara, Ceutara eta Melillara egindako behin betiko esportazioen zenbateko osoa adierazi behar da.
- KOKAPEN ARAUAK APLIKATUZ ZERGARI LOTUTA EZ DAUDEN ERAGIKETAK (56 LAUKIAN SARTUTA DAUDENAK IZAN EZIK): (54) laukian adierazi behar da zein izan den, autolikidazioaren gaia den epealdian, kokapen arauak aplikatuz zergari lotuta ez dauden ondasun eta zerbitzu emateen zenbateko osoa, 56 laukian sartutakoena izan ezik.
- ZERGARI LOTUTAKO ERAGIKETAK, SUBJEKTU PASIBOAREN INBERTSIOAREKIN: (55) laukian, honako eragiketa hauek autolikidazioaren gaia den epealdian izan duten zenbateko osoa adierazi behar da: BEZaren Arauaren 84. Bat 2. b), c), d), e) eta f) letren eta 140. quinque artikuluen arabera subjektu pasiboak aitortzailea ez baizik eta hartzailea dutenak.
- LOTUTA EZ DAUDEN ERAGIKETAK, OSSen babespean: (56) laukian, kokapen arauak aplikatuz lotuta ez dauden eta lehiatila bakarraren babespean (One-Stop-Shop) dauden eragiketen zenbateko osoa adieraziko da.
- LOTUTA DAUDEN ETA OSS-EN BABESPEAN DAUDEN ERAGIKETAK: (58) laukian, kokapen arauak aplikatuz lotuta dauden eta lehiatila bakarraren babespean (One-Stop-Shop) dauden eragiketen zenbateko osoa adieraziko da.
- ONDASUN ETA ZERBITZU EMATEEN ZENBATEKOAK, KUTXA IRIZPIDEAREN ARAUBIDE BEREZIA APLIKATU ARREN SORTZAPENAREN ARAU OROKORREKIN BAT SORTU DIRENAK (180) eta (181) laukietan, zenbateko jakin batzuk jarri behar dira, hain zuzen ere, zerga oinarriaren guztirako lehenengoan eta kuotaren guztirako bigarrenean, zeinak autolikidazioaren aldiaren egindako eta kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatu arren sortzapenaren arau orokorreakin bat sortutako ondasun eta zerbitzu ematei dagozkien.
- ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETEI DAGOZKIEN ZENBATEKOAK, KUTXA IRIZPIDEAREN ARAUBIDE BEREZIA APLIKATU BEHAR ZAIENTAK EDO HAREN ERAGINA DUTENAK: 182 eta 183 laukietan, zenbateko jakin batzuk jarri behar dira, hain zuzen ere, zerga oinarriaren guztirako lehenengoan eta kuotaren guztirako bigarrenean, zeinak kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatu edo haren eragina izan arren sortzapenaren arau orokorreakin bat sortutako ondasun eta zerbitzuen erosketei dagozkien.

AURKEZPEN LEKUA:

Autolikidazioak bide telematikoak aurkeztera beharrik ez dauden subjektu pasiboentzat, autolikidazioaren emaitza "sartzeko" bada, Arabako Foru Aldundiak entitate laguntzaile bezala jarduteko baimendutako kreditu edo aurrezki bankeetean aurkeztu beharko da. Autolikidazioaren emaitza "konpentsatzeko" edo "itzultzeko" izanez gero, Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuan aurkeztu beharko da, "lehiatila bakarrean".

LEGE OHARRA. DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuk babesteko erregelamendu orokorra) jasotakoak betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Zergadunen Fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduak zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dira. Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan. Erregelamendu horretan aitortzen diren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko, haien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba). Informazio gehiago: <https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>